

Uda kanpaina martxa onean doa Itsasondon hainbat ekintzekin

Liburutegia

Aurtengo udaran, uztailean zehar, Itsasondoko liburutegiak 'Eutsi liburu bat' kanpaina jarri du abian. Udaran, liburutegira jendea gutxiago hurbiltzen dela, eta horri erantzun bat eman eta irakuzaletasuna areagotu nahian, liburutegia kalera atera da. Medikuei etxe, jubilatuei, kaxintanek, Lourdes denda, udaletxe eta gaztelekuan liburu eta aldizkari desberdinak jarri dira eta herritarrek bertatik hartzeko aukera izan dute.

Erantzuna orokorrean ona izan da eta nabaritu da kanpainak eragina izan duela, liburutegiko txartela egitera jende gehiago animatu delako eta liburutegian mugimendua apur bat handitu egin delako. Horrez gain, udalekuei begiraleekin koordinatu gara eta hurrengan liburuak hartzeko ohitura sustatu nahian, goizetan egun batzuetan haurrak liburutegira gerturatu eta liburuak hartu dituzte etxera eramateko.